

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko otsailaren 18a


**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**

**Lizarra** • Gaur plazaratuko dute Gustavo de Maezturen aldizkari berria

**Patxi Vila** • «Kasualitatez ailegatu naiz triatloi zurira»

## Javier Pagola,



Hogeita hamar urte egin ditu Nafarroako irratigintzan Javier Pagolak, Radio Pamplona-Cadena Ser irratian hain zuzen ere. Trantsizioa deitu duten horretan, Mikel Bujandarekin batera egiten zuen Batzarre izeneko irratsaioan ahotsa eman zien hitz egin nahi zutenei. Irratiak bitartekaritza lana bete behar duela dio, eta hori egiten saiatu da egunero, baita entzuleen hurbileko informazioa ematen ere. Orain, irratia zentralizazioaz eta gidoirik gabeko irratiaz kezkatutik, mikrofonoaren mundua utzi eta lankidetzaren munduan sartu da, Medicus Mundi elkartearen bitartez.

# irratigizona

Bera ●

# Mundua entzungai

Hilabete hondarra arte da ikusgai 150 musika tresna biltzen dituen erakusketa

**Inguruan ikustera eta aditzera ohituratuta gauden musika tresnekin zerikusi guti duten 150 instrumentu ikus daitezke Berako Kultur Etxean hilabete osoan, erakusketa berezi batean.**



Era guztietako musika tresnak daude ikusgai egunotan Berako Kultur Etxean. ● GARI GARAIALDE

**I**RUNGO JOSE LUIS LOIDE ETA Lourdes Iarza bikoteak mundu guztian barrena bildutako 2.000 musika tresna baino gehiago dituzte. Horietatik 150 paratu dituzte erakusgai Berako Kultur Etxean, Toki Ona institutuko guraso elkarteak antolatuta, hilaren 26a bitarte. Lehendabiziko aldia da bikote honen erakusketa Nafarroan ikus daitekeela.

Bitxia eta harrigarria da erabat erakusketa. Instrumentuak atalka banaturik daude mahaietan eta paretetan: berezkoak, mintzezkoak, harizkoak eta haizezkoak. Tresna aski bitxiak dira Vietnamgo eta Txinako aho organoak, edo Nepalgo *samkha* adar naturala. Ikusgarriak dira Afrikako jatorria duten musika tresnak lantzeko modua. Australiako *didjiredooa* eukalpto adar batetik sortutako tresna da, eta termitek

jan ondotik erabiltzen dute musikarako. Horiek adibide soil batzuk baino ez dira. Angola, Iran, Zaire, Ginea, Boli Kosta edo Gabongo danborrak, Suitzako *aphorna*, Txekiar Errepublikako *dudya*, Italiako *zanpogna*, Errumaniako *tambal kitara* edo Thailandiatik ekarritako 180 kiloko xilofonoak aho zabalik uzten dituzte bisitariak.

Irungo bikote honek urte mordo darama tresnak biltzen. «Orain zortzi urte zabaldu genuen lehendabiziko erakusketa. Ordudanik 59 antolatatu ditugu, bakar bat ere berdina ez dela», adierazi du Lourdes Iarzak. «Guk egindako bidaetan, lagunei eskatu-

ta... poliki-poliki joan gara kolekzioa osatzen, 2.000 instrumentu inguru eduki arte», erantsi du.

Guztiek dute xarma berezia. «Bakoitzak bere istorioa du. Batzuk, lortzeko izandako zailtasunagatik, beste batzuk, instrumentu bereziak direlako, edo soinua gustatzen zaigulako, duten balioagatik... bereziak dira guretzat», argitu du Lourdesek. Aurreko guztiak ez ezik, Egipto, Norvegia, Grezia, Bulgaria, Mongolia, Zaire, Mauritania, Indonesia, Txina, Afganistan, Moldavia, Turkia, Vietnam eta Maliko biolinak, eta Indiako *banam* biolina (balio handikoa), edo Argentina, Fran-

tzia eta Italiako antzinako soinuak daude. Euskal Herritik txistu zahar bat, ttun-ttuna eta alboka ikusten ahal dira.

Baina musika tresnak ukizterik ez daudenez, ikustearekin konformatu behar. Soinua aditzeko, hala ere, bi ordenagailu paratu dituzte, mundu guztiko hainbat musika tresnaren inguruko xehe-tasunak bildurik: jatorria, jotzeko modua, argazkiak, ateratzen duten soinuarekin.

Toki Ona institutuko guraso elkarteak antolatuta, ortzegunetik igandera dago ikusgai, Berako Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara.

→ Jon Abril

Baztan

Gizakunde eguna berreskuratu dute

JO ALA JO KULTUR ELKARTEAREN arabera, Baztanen garai batean Inauterietan hirur egun nabarmentzen ziren: gizakunde, emakunde eta orakunde. Hirurak ostegun jarraietan ospatzen ziren, gizonen eguna, emakumeena eta gizaki guztien ospatzen zirelarik. Ohitura horiek berreskuratu nahirik, bihar gauerako Gizakunde eguna antolatu dute Jo Ala Jok eta Erratzuko Kultur Elkarteak. Inaute gaua Arizkungo Elkartasuna elkartearen hasiko da, herri afari batekin. Ordu bata aldera, partehartzaileek, mozorroturik, Erratzurako bidea hartuko dute. Plazan Jantzilo mozorroa erreko dute, gaitzak eta ezbeharrak uxatzeko. Ondotik, mozorroek dantza egingen dute. Zera dio Jo Ala Jo taldeko Joseba Otondok: «Inauteen muina berreskuratu nahi dugu, gizarteko gaitzak uxatu; egun langabezia edo sakanaketa izan daitezke gaitzetako batzuk. Jantzilok hori guztia adierazten du».

Emakunde eguna otsailaren 26an ospatuko da Elizondon. Goizeko hamarretan puskak bilduko dituzte, bi orduetan Elbeteko ostatuan bazkaria egingen da. Bostetan kalejira egingen da Hartz batekin eta Elizondoko Jantziloarekin. Ondotik, Jantzilo erreko dute eta xingar-jatea egingen da. Goizeko lauretan, besta bukatzeko, burrunba egingen da karriketean.

→ Rakes Gofñi

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



## Aldaketak datozkigu mundura

**N**orberaren bizitza aitzina doan neurrian zer izan nahi dugun hasten gara pentsatzen. Halaxe hasi naiz neu azken egunetan. Baxeolari bikain hori islamera gerturatu zen bezala, edo Siziliako bizilagun gaizto ohiak bere trapu zikinez damutzeari ekin zionekoan bezala, neronek ere tamaina galanteko erabakia hartuko dut.

Hogeita hamar urteak hurreratzen ari dira eta jada badakit zer ez dudana izan nahi. Peredikü honen ezkerrean so egiten ahal duzue, mutila naiz. Edo gizona, arra Elhuyarrekoek erranen luketen gisan. Eta nik emakume izan nahi dut. Edo neska, edo emea, gibekekook erranen luketen gisa berean. Potroetaraino nago gizon-edo izateaz. Emakume izan behar dut. Eta laster.

**Hauxe izanen da ene lehen bidea.**

Bizitokia ere hautu beharko dut. Iruja zaharkitu hau utziko dut, auzokoez konprenituko ez nautelakoan eta Leon Felipek ongi aurreikusi zuena aintzat hartuz\*. Nafarroan bizitzea laketzen zait eta ene barronek itsasoaren deia jaso dutenez gero kostaldera joko dut, Irun ala Hondarribira, bietariko batera.

Orduan, hango bizilagun banaiz, bertako udal erroldan emanen dut izena. Ekipaje handiko neska izanen naiz: altzari gutxi, traste gutxiago baina liburu sorta ederra eta ideia multzo hauuundia. Bai; ideiak, neureak ekarriko ditut itsasaldeko paraje hauetara.

Neska iriziduna izanen naiz, Chek erran zigun iraultzaile batek munduko edozein txokotako injusti-

zia sentitu behar zuela, eta borrokatu aldatzeko. Hauek dira ene ideiak, sexua baino garrantzizkoagoak.

Bertako bizitzan murgilduko naiz, beraz. Festetan ere bai. Eskopeta erosi dut. Alpagatak goizean erosi ditut eta jantzia lagun batek egingen dit. Bai, Aitzane berriak alardean hartuko du parte, eskopeta eta titiak tente eta harro.

**Hauxe da ene bigarren bidea.**

Oharra: England-eko aldizkari zientifiko batean irakurri berri dut dagoeneko posiblea dela larruazalaren kolorea aldatzea. Aitzane beltza izanen da.

\*Bere erranetan frankismoaren lerdea lurretik nork kenduko zuenik ez zen izanen. Nafarroan bistan da.

Lizarra •

# Artea eta literatura uztartuz

Gustavo de Maeztu museoak aldizkari informatiboa plazaratuko du gaurtik

Artea eta literatura uztartuz, museoaren baitan zer egiten den jakinaraztea da gaurtik aitzina kaleratuko den argitalpenaren xede nagusia. Halaber, Gustavo de Maeztu margolari eta idazlearen inguruan idatzi izan diren testuak jasoko dira hainbat aletan.



Pedro Irulegi diseinatzailea, aldizkariari azken ukituak ematen. • KRISTINA BERASAIN

ruan idatzi izan ziren hainbat testu artxiboetan eta aldizkari eta liburu zaharretan daude, galdurik nolabait, eta horiek guztiak berreskuratzea garrantzitsua dela deritzogu, jendeak testu horiek eskura izateko", azaldu du Camino Paredesek, Gustavo de Maeztu museoako zuzendariak. "Aspaldian genuen aldizkaritxo hau egiteko ideia, eta gaur egun pozgarria da guretzat, azkenean, kalean delako, eta bai museo, bai Gustavo de Maeztu ere nolabait, bizirik daudela adierazten duelako", jarraitu du.

Argitalpen berriak beltza eta berdea erabiltzen ditu na-

gusiki, eta gaztelania eta euskara tartekatzen ditu. Lau orrialde ditu, dohainik da, museoan bertan eskura daiten, eta Euskal Herriko eta Espainia osoko arte museo guzietara ere helduko da. Orotara 1.000 kaleratuko dira.

Aldizkaritxoa urtean lau aldiz argitaratuko da, urtaroekin batera hain zuzen ere. Lehenengo zenbakiaren azalean, Gustavo de Maezturen *Los novios de Mozmediano* koadroaren interpretazio bat ageri da; gizonezko batek eta emakumezko batek elkarri eskua ematen diote bertan, artea eta literatura uztartzea-

ren emaitza baita aldizkaria. Argitalpen berriaren atzealdean, berriz, artearen inguruko aipuak, gogoetak eta hausnarketak biltzen dira; esaterako, Marc Chagallen *Artea artimaren egoera da batez ere*. Barrualdean, liburuan Gustavo de Maezturen deskribapena jasotzen da, Ramon

Gomez de la Serna idazleak 1918. urtean *Pombo* liburuan idatzia. Halaber, azken hila-beteetan museoan izan diren ekintza nagusiak biltzen dira: Nicano Piñole eta IV. Pintura Biurtekoko erakusketak, hain zuzen ere. Maria de Corral La Caixa Fundazioko Arte Garai-kideko zuzendariari egindako elkarrizketa sakona ere biltzen da ale honetan. Azkenik, datozen hilabeteotan museoan egingen diren ekintzen zerrenda dator, agenda moduan. Oro har, museoaren ahotsa izanen da aldizkaria hemendik aitzina.

→ Kristina Berasain



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

## Candanchu!

Aspertuta nengoen telebistari begira. Pelikula txarra baino txarragoa zen eta funtsik gabekoa. Bat-batean protagonistak, neska-ilehori-gazteak, jertsei gorria eta gona bioleta zituenak, eskiatzera joan behar zela eta, eskiatzeko bota erraldoi horietako batzuk probatu zituen. Redios! Hura lurrikara gorputzean sentitu nuen! "Zer da hau?", galdetu nion neure buruari. "Zer gertatzen zaizu, Xabi?". Nire aurrean irudi mirengarri hark hitz egiten segitzen zuen; baina nik bere gona eta eskiatzeko bota erraldoiak besterik ez nituen ikusten. Kaleko janzkera haren gainean bat-batean bota haiek erantsitako zer edo zer hiper-morbosoa eta megaerotikoa agertu baitzitzaidan. Bideo bat izan balitz, pause-ri emango nion, baina telebistan zuzenean emandako pelikula bat zen, eta handik gutxira plano aldatu eta berarekin batera paradisu-ko irudi hura desagertuko zen... betiko. "Jauna, zergatik egin didazu horren anormala?", izan zen nire hurrengo pentsamendua.

Segituan ideia bat izan eta korrika eta presaka Internetera konektatu eta Yahoo bilatzailean SKI BOOTS idatzi eta enter sakatu nuen. Emaitzen pantaila agertu zenean 267 lotura zeudela irakurri ahal izan nuen. Askok eta askok eskiatzeko botak saltzen zituzten. Beste bi eskiari buruzko museoak ziren. Gainerako 156 loturak SKI BOOTS SEX titulua zekarten! Hura poza nirea! Ez nintzen animalia arraro bat! Ni bezalakoak dexente baziren mundu mundialean! Hurrengo egunetan loturak bata bestearen atzetik sakatzen ibili nintzen. Eskiatzaile batek bere bizitza guztian ikusten dituen baino bota gehiago ikusi nituen nik bost egun horietan. Hiru aldizkari elektronikotan harpidetu nintzen. Nire zaletasun berriko adiskideekin eztabaida sutuak izan nituen: ea gurea Fetitismoan, Voyeurismoan edo non kokatzen ahal den. Gure bizio sekretuaren martiriak ezagutu nituen: Quebecoko Fabian, esate baterako, elurra gorrotatu eta, hala eta guztiz ere, urte oro txorkatilik eta besoak eskiatzeko pistetan hausten dituen; Milaneko Tiberio, bere logelaz zegoelarik ama atea jo gabe sartu eta bere kolekzioko 29 bota parekin deskubritua izan zena. Iruñeko Xabi, 34 urtez eskiatzeko bota bat ikusi gabe biziraun duena. Askida! Hurrengo helburua: Candanchu.

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Ehun urte lanean

Duela ehun urte baino gehiago sortu ziren euskualdeko hiru lantegi eta dendaren inguruan egin du **Ttipi-ttapa** aldizkariak erreportaia bere azken zenbakian. Elizondoko Mena argazkidenda, Doneztebeko Ostiz zapatadenda eta Berako Funbera lantegia dira mendea bete duten hiru enpresak. «Berako Fundizioa da hiruen artean zaharrena. Gaur egun Funbera izena hartu du ofizialki, baina herrian jende gehienak fabrika zaharra erraten dio oraindik. Berez 1917an sortu zen enpresa hau, bainan ordurako denbora anitz eramaki zuen burniaren merkatuan lehiatzen. Bere jatorrian ola

bat izandu zuen, Beran tradizio handia baitzegoen gremio horretan. XX. mendean gaur egun den fabrika bihurtu zen».

«Mende bat baino gehiago bete duen bertze enpresa bat Doneztebeko Ostiz denda da. 1874. urte inguruan ireki zuten, zapatadenda eta komertzio tiki bezala. Jose Ostiz eta Francisca Elizari izan ziren XIX. mende hondarrean Ostiz dendaren ibilbideari hasmenta eman ziotenak. Garai batean Ostiz zapatadendan mendiko botak egiten ziren batez ere. Euskualde guztian aski ezagun bihurtu ziren Ostizeko bortzegiak. Mugaz bertze aldetik ere hainbat


erosle etortzen zen bortzegi famatuak erostera. Gaur egun Carlos Ostiz da dendako nagusia».

«1860. urtera itzuli behar dugu Mena argazkidendaren jatorria ezagutzeko. Urte hartan Felix Menak ikasketak akitu eta argazki denda jarri zuen Madrilan. Handik Valladolid aldera eta gero Irufean paratu zuen estudio bat. Elizondon 1898. urte aldera ireki zuen denda. Bere semeak, Vitorio Menak, aitaren ofizioa ikasi eta etxe bat erosi zuen estudioa jartzeko. Hori da guk gaur egun ezagutzen dugun Mena argazkidenda».

# Javier Pagola

Irrati kazetaria

## «Nire kezka nagusia irratiaren bitartekaritza izan da»



Javier Pagolak hogeita hamar urte egin ditu Nafarroako irratian, Radio Pamplona-Cadena Ser irratiaren bitartekaritza izan da. Trantsizioan, *Batzarre* izeneko irratsaioan ahotsa ematen hitz egin nahi zutenei. Irratiak bitartekaritza izan da lana bete behar duela dio, eta hori egiten saiatu da eguneroko entzuleen hurbileko informazioa ematen ere.

**J**AVIER PAGOLA, IRRATIAREN ZENTRALIZAZIOAZ eta gidorik gabeko irratiak kezkatu, mikrofonoaren mundua utzi eta lankidetzaren munduan sartu da, Medicus Mundi elkartearen bitartez.

■ **Noiz eta nola sartu zinen irrati munduan?**

Ni ez nintzen unibertsitatetik pasa. Lanaren indarrez onartuko zidaten kazetari eta esatari titulua. Irakaslea nintzen eta, lanik gabe nengolarik, prentsan irakurri nuen Radio Requetek bi esatari behar zituela, bata emakumezkoa eta bestea gizonezkoa. Hamazazpi hautagairen artean aukeratu ninduten. Gogoan dut hautaketa proba. Hainbat gauzaren irakurketa espresiboa egin behar zen, baita elkarrizketa imajinario bat ere. Nik Neil Armstrong elkarrizketatu nuen, eta Don Goyo Armstrongena egin zuen. 1969an sartu nintzen Radio Requeten. Diktaduran geunden, eta irrati isilarazita zegoen. Iruñea tikiagoa zen populazioan, ekonomian, zerbitzuetan eta, batez ere, pentsamoldean. Irratia horren araberakoa zen.

■ **Irratia isilarazita zegoela erran duzu.**

Bai. Ni berehala hasi nintzen informazioa ematen, baina hau zentsuratuta zegoen. Informazio eta Turismo Ministerioaren ordezkaritzari aurkeztu behar genizkion hurrengo eguneko irratsaioen gidioak. Zigilua arratsaldeko zazpitan jartzen zizuten. Adleraz-

«Radio Pamplonatik joan nintzenez, esan nien uste nuela etorkizunak euskaraz hitz egingo zuela eta irrati horretan gai hori kontuan hartu behar zela»

pen askatasunaren hilketa zen hori. Gainera, Radio Nacional de Españiak informazio nazional eta nazioartekoaren eskulibua zuen. Informazio lokalean zenbait kontutan ez zuten askorik begiratzen, batez ere udal bitiztan. Franco hil arte askatasun esparruak lortzean zetzan gatazka, eta udal informazioa zen horietako bat.

■ **Zer egiten zenuen orduan?**

Ni albistegiak egiten aritu naiz ia beti. Trantsizio garai txundigarri hartan, *Batzarre* irratsaioa egiten nuen Mikel Bujandarekin. Hura hagitz interesgarria zen, erreferentzia informatiboa. Politika eta gaurkotatzen eztabaida berokak izaten genituen. Mugimendu kultural eta sozial guztiak, komunikatu nahi zuten jendeak, lekua zuen bertan. Gogoan dut batzuek zenbait egunetan egon behar zutelako zain irratsaioan parte hartzeko. Bost bat urtez iraun zuen.

■ **Nola ikusi zenuen garai hori mikrofonoaren bestaldetik?**

Jendea oso bizirik zegoen, jakiteko gogo handia zegoen. Guk irrati hurbila egiten genuen, jendearen interes politikoa eta sozialak biltzen zituen, baita herritarren bitzita eta arazoak ere. Udal bitzita zen nire espezialitatea. Udal batzar guzietara joaten nintzen. Hor bai, hor izan ziren askatasunaren aldeko gatazka garrantzitsuak.

■ **Irratia kaleko ahotsari ireki zeniotenean arazorik izan zenuten?**

Gauza handirik ez. Espedienteren bat ireki zizuten. Eta Jurramendiko egun batean Accion Carlístakoak emisora sartu, langile bat lotu eta zinta bat jartzen saiatu ziren, baina ez zuten lortu. Baina horien aitzinean ehunka dei izan dira gure lana eskertuz. Behin, udako denboraldiaren bukaeran, andre batek deitu zuen errateko zainketa berezian unitatean izan zela hilabetez eta eskerrak ematen zizkigula bitzitzeko arrazola izan omen ginen eta.

■ **Euskara irratiaren sartzera izan da beti zure asmoetariko bat.**

Mikel [Bujanda] eta biok hasi ginen euskara eduki moduan sartzeko. Gero pentsatu genuen euskara edukitzea ere bazela, eta euskara hutsezko saiok eta saio elebidunak egin genituen. Baina Mikelek ikusi zuen hori eskasa zela euskarak zuten eskaerarako, eta orduan sartu zen Euskalerrria irratiaren ideia, ideia bikaina. Baina nik uste dut beste irratiak ere saio elebidunen bat izan beharko luketela. Nire euskara ahula da eta



ki, Betelukoa zen eta euskarazko irratsaioak egiten zituen. Ni haurra nintzelarik, entzuten nituen. Beraz, orain zerbait euskaraz egitea jarraipena besterik ez litzateke.

■ **Irratiko zein pertsona aipatuko zenuke?**

Batzuk aipatzea eta besteak ahaztea ez da zilegi. Ni alegatu nintzenez, Ramon osaba bere azken egunetan zen. Gero Don Goyo etorri zen, beste monumentu bat, aparta, oso bertakoa, egunerokotasunaren edozein gauzarekin salda egin dezakeena. Baina nire lankide minak Valen Esparza eta Pili Martinez izan dira. 80ko urteetan asko eman zuten irrati irekia izan zedin, parte-hartzaile,

ahal izan dudana egin dut. Solaskide euskalduna izan badut, elkarrizketa ele bitan egin dut, hamar galderetatik bizpahiru besterik ez baziren ere. Nik uste dut jendeak hori jasotzen zuela. Hizkuntzaren jasotzea atsegina egitea da nire helburuetako bat.

■ **Euskararik gabe gelditzen da Radio Pamplonan?**

Orain ez da deus gelditzen. Joan nintzenez, esan nien uste nuela etorkizunak euskaraz hitz egingo zuela eta irrati horretan gai hori kontuan hartu behar zela. Baina ez bakarrik etorkizunarengatik, baita iraganarengatik ere. Ramon osaba, Ramon Urrizal-


## Irratigizona eta ibiltaria

JAVIER PAGOLA LORENTE MANILAN JAIO zen, 1946 urtean. Gurasoak Lizarrerrikoak zituen. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu, 24 eta 21 urtekoak. 1969an sartu zen Radio Requeten, gerora Radio Pamplona-Cadena Ser izanen zena, eta duela guti arte izan da hor.

Pagolak sentimendu erlijioso sakona du, eta oinarriko kristau taldeetan izan da aspalditik. «Munduan estalperik gabe ibiltzea zaila da», dio. «Baina ni ez naiz beste munduan pentsatzen ari. Erroka hemen dago. Niri hobea izaten laguntzen dit, behar zaituen jendearen ondoan egoten alegia».

Hiru liburu idatzi ditu: *Llegar a viejo*, *Quesos de Navarra* eta *Navarra por mil caminos*. Lehenengoa, irratiarendako egin zuen ikerketa baten emaitza da; bigarrena, Nafarroako Gobernuak eskatu zion, gazten sektoreari bultzada emateko; eta hirugarrena, bere bizitza eta lanaren ondorio da. Mikel Bujandak dio, apika, Pagola dela Nafarroa hobekien ezagutzen duten pertsonetarikoa bat. «Hala bada, nire lanarengatik da, baita ibiltzea hagitz gustatzen zaidalako ere», dio Pagolak. Goitik behera zeharkatu du Pagolak Nafarroa *Navarra geografía humana* izeneko irratsaioarekin, «errealitatearen ezagupena tokian bertan eginez». «Nik atsegin dut jendearekin hitz egitea, informazioa biltzea, paisajea modu aktiboan begiztatzea», erran du.

Nafarren inguruko topikoak egia direla uste du, «baina errebisatu behar dira, hala ere». Izan ere, gauza batek sutan jartzen du: ajoarrieroaren lurraldean McDonald's jate-txe bat jarri izanak.



Pagolak ez du erabat utzi irratiak. Larunbatero tartetxo bat uzten diote, eta ez du baztertzeko lankidetzaren inguruko irratsaio bat egitea.

UXUE MONTERO

«Irrati ezberdina egin behar da, gidioa duen irratiak. Kontatzen dena ikusarazi behar da mila baliabiderek, ongi idatzitako hitz batekin, ongi zainduriko soinu girotzarekin, musika ezin hobeki aukeratuz, jendeari ahotsa emanez, soinuak jasoz»

lea, zerbitzu publikokoa. Bitartekaritza irratiak da hori: ahotsa eman entzuten ez zaionari, herritarren ekimenak jaso eta erantzuna eman dezakeenari helarazi. Jendearen elkarren arteko ulertzea gauzatu behar dugu. Hori izan da nire kezka nagusia, irratiaren bitartekaritza lana.

■ **Zer-nolako irratiak egitea duzu gustuko?**

Azaltzen ari zarena ikusarazi behar duzu mila baliabiderek, ongi idatzitako hitz batekin, ongi zainduriko soinu girotzarekin, idatzitako paragrafoekin, dokumentazioarekin, musika ezin hobeki aukeratuz, jendeari ahotsa emanez, soinuak jasoz. Baina orain nork du kontuan hori guzua? Irrati ezberdina egin behar da, gidioa duen irratiak. Eta ez hitz laua, berdina beti. Gidioa duen irratiak, hitzak dirdira berezia du.

■ **Irrati lokalaren gainbehera izan da zure kezketako bat.**

Erkidegoen Espainia egiten ari zen bitartean, zentralismoen irratiak jaio zen. Izugarria iruditzen zait irrati lokal publikorik ez izatea. Orain politikoez telebista kanal bati bu-

ruz hitz egiten dute. Baina zerbitzu publikoaren ikuspegitik, irrati operatiboagoa da, hurbilagoa, kritikagoa, aberasgarriagoa eta hezitzaileagoa. Eta askoz ere merkeagoa.

■ **Etorkizuna ikusten diozu irratiari?**

Bai, noski. Berehalakotasunak eta kalitateak etorkizun bikaina ematen diote. Goizean irratiak entzuten duen jende guztiak berriak jakin nahi ditu, baina, batez ere, zein eguraldia dagoen eta errepidean oztoporik ote dagoen. Izan ditudan esperientzia politenak elurteenak dira. Herritarren bizimoduak trabatzen zuen elurte handia zegoenean, herri anitzendako, irratiak zen errealitatearekin lotura bakarra. Irratiak ez du inoiz galduko zerbitzu itzaera eta berehalakotasuna.

■ **Irratia behin betiko utzi duzu?**

Urtarrilaren 21a izan zen nire azken eguna. Baina itzul naiteke, ateak oso irekita utzi nituen. Esperientzia berri bat egitera joan naiz. Medicus Mundin jarraituko dut egiten irratiaren egiten ari nintzena: informazioa eta komunikazioa. Baina irratiak ez du erabat utzi. Larunbatero ibilaldi bat kontatzen dut. Eta ez dut baztertzeko lankidetzaren inguruan pixka bat gehiago dakidanean irrati itzultzea eta horren inguruko saiok egitea, Hegoa irratiarekartzeko, ahotsa emateko.

→ Asier Azpilikueta

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Baztango euskal idazleen berri laburra (V)

Baztango euskal idazlez osaturiko gure zerrendarekin jarraituz, aste honetan Elizondoko hiru egile eta Arraiozko beste bat badakartzagu: Bernardino Biguria idazle eta itzultzaile oparoa, Biela eta Lazkoz olerkariak, eta Arraiozko Artzaia lexikografo aparta.




**P**askual Bernardino Biguria Ozta 1871-1932, Elizondo) Euskararen alde zein euskaraz lan eskeraga burutu zuten fraide kaputxinoek Nafarroan 36.eko gerratearen aurretiko urte itzaropentsuetan. Paskual Bernardino Biguria Ozta kaputxino talde horretako kidea genuen. Bejondeiela horregatik. Elizondon 1871.eko maiatzaren 20an jaioa, apez sekularra egin zen lehenbizi, Lizasoko erretore aritu zelarik; haatik, ez zuen bult luzez iraun Ultzamako herrian, eta Asiskoaren itzalera bildurik, buruñurdunen jantzi nabarra aukeratu zuen bizi-lege 1901.eko maiatzaren 21ean Zangozán. Orduz geroztik Elizondoko Frantzisko anala izanen genuen. Hondarribiko eta Donostiako lekaldetxeak izan zituen ohiko bizitoki hautak, 1932.eko uztailaren 4ra arte, ez behar zozo batek eraginda, giputz hiriburuaren etxeko elizaren teilatutik behera zendu zen arte hots. Biguria euskal literaturaren historiarako hainbat lan utzi zigun. Lehenbizikoa, 568 orrialdeko *Kristaia bere pont-elizan: Iruñeko Lorenzo Doitsuko Arim-artzat argi Zelayeta-ko Marzelo jaunak bere eliztarrentzat egin eta Elizondoko Prantzisko Aita Kaputxinoak euskeratutako eliz-liburuba*, Tolosako Eusebio Lopezen etxean, 1910 eta 1911 urteetan, Errezuko Marzelo Zelaieta Esparak ondu lanaren itzulpen zuzena. Liburu hasieran itzultzaileak euskaldun kristaulari eskaini zion hitz bi dugu Elizondokoak berak sortutako pasarte bakarra: «Eskutan dezun eliz-liburu eder au euskeratuko ote nuban galde egin zidaten. Ezin geyagorano lanpeturikan nengon, nerretzat gauz oso zailla zan, bereala egin bear zan, alde guzti-yetatikan eragozpen-trabak sortzen ziran. Baiñan euskaldunen alde zerbait egin nezakeala gogoratu bezin laster, erantzun nuban: euskeratuko ez det, ba? Pozik alere! Beratikan abiyatuko naiz: ni baiñon euskaldun oreak bazter bakoitzean iru edo lau arkituko dituzu, ni baiñon euskalzaleagorikan ordea, ifion ez. Gora gure euskera maitagarriya!».

Biguriak argitara eman zuen bigarren idazkia ez zen itzulpen soila, sormeneko *Lore usaidun mamitsuak* baizik, Tolosako Gipuzko argitaldarian, 1922.ean. Elizondokoak hil berria zen Txomin Agirreri opa zion lana. Eskaintzan lagunak zirela zioskun, eta berrari galdetu zion ea bere liburua argitaratzea komenigarria zenez, izan ere, idazkiok Euskal Eснаlekoek antolatutako sariketetan aurkezturiko eta ez saritutakoak baitziren. Edozein modutan ere, lan honen bigarren edizioa izan zen, Iruñean 1932.ean agertu zen *Loretegi berria* hain zuzen. Honen hitzaurrea Azkuek berak egin zuen, eta ezin samurrago agertu zitzaigun euskaltzainburua: «Loretegi berri oni usain ederra dario. Izanak eztu izena gezurtatzen. Gai asko darabiltziki, yakingarri eta onurakorrek gehienak, eta bakoitza ederki azaldu ondoren, amaitzat, irakaspén egoki bat ateratzen du».

**Jose Tadeo Biela López** (1875-1935, Elizondo) Idazle hau Elizondoko Dolae-txean jalo zen 1875.ean. Gaztaroa, berriz, Lesakan eman zuen bertako organojolea zen bere osaba Frantzisko Bielarekin. Eliz ikasketak hasi bazituen ere, filosofiarako ikasturtean geratu zen. Aparteko abeslaria, Iruñeko orfeolaren tenore bakarlaria izan genuen. Añamendi entziklopedian beranduko idazle aurkeztu zigun Estornesek, bere lan argitaragabe gehienak galdutzat eman behar direla azpimarratuz. Edozein modutan ere, Bielak izkiriaturiko olerkiren bat edo beste gozatzeko aukera badugu, esate baterako 1927.eko *Euskal Eснаlea*-n agertu zen «Umezumari» izenburukoa.

**Jabier Lazkoz Biguria** (1887-1965, Elizondo) Elizondoko Ardandegi etxean 1887.eko abenduaren 3an sortua; lehenbiziko ikasketak Leka-



rotzen burutu ostean, teologia Comillasen egin zuen 1907-1914 bitartean, 1922.ez geroz Zigako erretorea izan zelarik. Berrogeita urte luzeetan bertan jardun ondorean, Zigan zenduz 1965.ean. Berreziki erdaraz idatzi zuen Lazkozek, *Pregón, El Pensamiento Navarro, La Verdad*, eta *El Bidasoa* aldizkarietan, azken honetan gutxiz gehien. Euskaraz taxutu zituen gehienak, ordea, argitara gabe geratu ziren, ezagutzera eman zituenak oro bertsoak izan zirelarik, bai hiriko elizan herriak kantatutakoak, bai *Oleriti* aldizkarian zein *Eusko Olerkiak* bilduman Santi Onaindiak argitara eman zituenak: «Goizlan goizik, argitu gabe / Bagoazi auzokuak / Aldapa goiti, mendi goyara / Nasiak gazte ta zarrak. / Irazelayan, egun osoan / Negurtzen garen indarrak / Neskatxak, baki, bai ta metatzen / Euskaldun mutil azkarrak».

**Paulo Arozena Urrutia** (1896-1964, Arraioz) Arraiozren 1896.eko otsailaren 23an sortua, kaputxinoen abaroan sartu zen 1914.ean Arraiozko Artzaia izen berria hartuz. Iruñean 1922.ean apez-tu ostean, denbora laburra eman zuen gure artean, 1931-1963 urte bitarte luzean Guam uharteetan eta Manilan ibili baitzen misiolari. Euskal Herrira itzuli eta gutxira zendu zen, 1964.eko urtarrilaren 31n, Iruñean. Euskal lanak *Iruñean gozatzeko Prantziskotarra*-n eta *Zeruko Argia*-n hasi zen argitaratzen, 1922.ez geroz, hitz lau zein bertsoz, eta *Begi-beltz* ezizenez gutxiz gehien. Ezagunagoa dateke, ordea, hiztegi gintzan egin zuen lanarengatik. Euskararen Adiskideek Iruñean 1926.ean antolatu zuten lehiaketaren gaien artean Azkueren hiztegiaren ez dau-dun hitzen zerrenda osatzeko proposatzen zuena bazegoen. Ohi zenaren kontrara, gai honen inguruan bost lan aurkeztu ziren, haietariko hoberena Arozena aurkeztu zuena izan zelarik.

etorri ahalean

Patziku Perurena

### Izenetik izanera gogoazuri

**E**GUBERRIETAN GURE intelektuak kontuak leitzen aritua nauzu: *Aberriaren Alde, Gogoa Zubi, Euskal Herria Krisian, Hau da ene ondasun guzia...* Espero bezalatsu, erudizio eta arrazoi ikaragarriz sena eta bihotza galduxeak harrapatu ditut gure erlijioso zahar zibilberriro ustekook. Beste ezpal batekoa da «Sarrri», jakina. Eta errespetozedo, beretzako «Xarra» denaren sermoitik bilduko ditut zirtzilkeria batzuk:

«Tradizio laburreko hizkuntza batek aukera ugari eskaintzen ditu ia ezerezetik sortzeko, eraikitzeko, ikertzeko, esperimentatzeko, jolasteko, tradizio higatu eta ajetsuegi baten zamarik gabe bide egiteko». Euskara tradizio «laburrekoa»? Bo bo! Euskaradun Herriak inoiz arimarik (jakite noblerik) izanen badu, hain zuzen ere, euskararen tradizio zaharregi horren zainetatik atera beharko du, edo anemiak galduko du.

«Politikoki hain bihurria al da onartzea euskaltzale guztiak ez direla abertzale, abertzale guztiak euskaltzale ez diren bezalaxe». L. Fernandez kazetari fina datorrit gogora, leitzar baserriar falanjista euskaldun batekin gerrako kontuak berritzen: «eta zuek orduan Francoren alde behartuta...?» esaten ziola behin eta berriz. Eta ni lotsatua, bazterrean. Eta beste muturrean berdin, beren artaldeko ezin sentituz zeharka begiratzen nauten «jator» horiekin. Gauza batek poztzen natxok, Xarra: zenbat eta euskaldunago, orduan eta bakarrago, eta arrotzago. Horixe duk nere kontsolamendu bakarra.

«Euskararen gune berriak sortzen ari garela erantzungo zait, eta hori hala bada ere, beti harritu izan nau gune berriak sortzearekin poztzen den baina betikoak galtzearekin kezkatzen ez den hiri-aire halako horren suftizientziak». Sufizientzia? Omnizientzia esan

nahiko huan. Saizarbitoriaren azpiohar honi begiraiok: «Noiz-bait hitzegin beharko dugu baserriar atzo kaleratu moddernoez, hitano femeninoa menderatzea kapital intelektual bakartzat dutenez, eta beren lehengusu-lehengusinen etxeko euskara hain ederra gorde-berek aiantzi egin dutela diote-, eta gaztelera inpresentable baten exhibizioa egiten dutenez». Esate batera, ezerez horixe nauk ni Xarra. Erdarak ongi (?) ikasi, neure hizkuntz altxor bizia atzendu, eta Europako nobela moderno sikopatologiko guziak xalakatut ondoren, bizitza arrazoi hutse dela euskañolez esaten ikasi arte, ez ninduke deus munduan. Hori ikasia zeukeat ongi, eta alde bat utzia.

«Hizkuntzarekin lehiatu ez den eta lehian lortutako etekinekin gozatu ez den hiztun erdi teknokrata erdi indiferente horrek ez du ulertuko esaten ari naizena, eta ez lidake axola haundirik ere». Baina nere nazka hortik zetorrek, Xarra. Izan ere gizarte osoa eskutik daraman teknokrata horixe baitaukat euskararen animapixar guziak ukatzeko edo esaltzeko bazter guzietan ipiña. Zerbait esateagatik, Miramar jauregiaren ikusia nagok ni, kritikari euskañol katedradunak Bidasoaz haruzko poesia trufaz goroztatzat jotzen. Baita politika linguistikako arduradun, euskara teknikari, kultur zinegotzi eta gisako teknokrata ipurtxuri franko ere, ergelkeriarik politenetan milioiak xahutzen eta tajuzko lan bakanei arnasa ere ukatzen. Inorena baino lehen, bere kosetxako lakra honen aurka egin beharko likek limpieza nordea galduta dabilen abertzale jendaje xiroldu honek, duintasun zipitzik izanen bala, baina...

«Ez dauka nork bere burua, eta nork bere historia ukatu beharrik, duintasunez ibiltzetzen ez den hiri-aire halako horren suftizientziak». Sufizientzia? Omnizientzia esan

### Ziria

Kulunka

• Motxorrosolo •

**E**GOERA BERRIAREN BESTE ADIERAZLEETAKO BAT SEASKARI EGIN proposamena da. Edukiari erreparatuz gero, barnean pozoia duela dirudi; alta, egiazko hordagoa dela ezin uka. Era guztietara, Frantziako Gobernuaren jarrerak, funtsik izanik, arerioa mugiarazten duela frogatzen du.

Patxi Vila  Txirrindularia eta triatloilaria

# «Kasualitatez ailegatu naiz triatloi zurira»

**Kasualitatez iritsi da triatloi zurira Patxi Vila. Lasterketa, txirrindularitza eta iraupeneko eskia nahasten dituen kirol horretan lehiatu den lehendabiziko aldian, Espainiako Txapelketan, bigarren sailkatu da; seigarren postua eskuratu du Eslovakian, Europako Txapelketan, eta lehendabizikoa taldeka.**

**T**IKI-TTIKITANDIK IKASTO-lan elkarrekin ibiliak izanik, bi lagun pare aritu gara Patxi eta biok, lehenagotik hamaika ordu elkarrekin igaroak ditugun ostatuan. Bere-berea duen atsegintasunez eta xalotasunez, ilusioa ageri zaio bizikletaz solasterakoan. Profesionaltara pasatzea du amets.

## ■ Nolatan izan zenuen lehendabiziko harremana triatloierekin?

Kasualitatea izan zen. Ni eskiatzen ibiltzen naizen inguruan badago jende mordoak triatloian ibiltzen dena, eta halek animatuta, prestatzaileari galdegin, eta, arazorik ez zenez, gehiegi prestatu gabe aterantz. Prestakuntzari begirako zerbait baino gehiago, giro horretatik hurbil nagoelako izan da harremana.

## ■ Zer alde nabaritu duzu bi kirolen artean?

Aldea izugarria da, hagitz ezberdinak dira bi kirol horiek. Triatloian zeure buruarekin gehiago landu behar duzu, zeuk egin behar duzu ahalegin guztia.

## ■ Triatloian izandako lehendabiziko esperientzia horietan nola ikusi duzu zeure burua?

Nahiko ongi. Korritzeko modu ezberdin bat nabaritzen da. Burua hotzago behar duzu. Txirrindularitzan karrekarak berak markatzen dizu noiz eman behar duzun guztia. Triatloian, berriz, anitz neurtu behar duzu, ondolik

bertze kirol batzuk ere egin behar dituzulako. Eslovakian hori nabaritu nuen eskia-tzerakoan, nekatuta teknikoki anitz galdu nuelako.

## ■ Indar neurtze hori da triatloiak duen alderdirik zailena?

Bai, nik uste dut baitez. Nire diziplina txirrindularitza da. Lasterka ateratzekoan ahal nuena eman behar nuen, baina ezin nituen indar guztiak horretan utzi, gero bizikleta eta eskia hartu beharra neukalako.

## ■ Espainiako Txapelketan bigarren, Europakoan seigarren, eta lehendabizikoa taldeka... Triatloian hain denbora guti eramanda, nola lortzen ahal da hain goiti ailegatzeko? Ongi prestatuta dagoen jende guti dagoela izaten ahal da arrazoia? Triatloia bigarren mailako kirola dela agian? Edo zure kirol maila handia delako?

Nik uste dut gauza guztien nahasketa dela, ez dagoela arrazoi bakar bat. Denbora dextente daramat kirola egiten, nahiz eta txirrindularitzara lotuagoa egon, kirol anitz egiten dut, eta hori ere nabaritzen da. Sei urte dira txirrindularitza amateurrean nagoela, eta inguruan izan dudana jendeari esker lortu dut ailegatu naizen tokiraino



soslaia

Beran jaiotzen, orain dela 24 urte, eta bertan bizi da egun. Kirol Magisteritzan diplomatu da, Soin Heziketako ikasketak egin nahi ditu heldu den urtean. Txirrindularitzara erabat lotuta dago gaur egun.

Tikitandik bizikleta gainean eta eskiatzen hasia, kirolari porrokatua izan da beti. Eskubaloien eta txirrindularitzaren arteko hautua egin behar izan zuen hemezortzi urterekin, eta bizikleta serio hartu zuen.

Ez du zalantzarik Miguel Indurain txirrindularia hautatzeko tenorean, eta egungoen artean David Etxebarria aukeratu luke. Profesionaltara edozein talderekin kontent igaroko litzatekeela erran du, baina aukeratzeko hasita, ONCE taldea aukeratu luke, lan egiteko moduagatik.

ailegatzeko; batez ere Pako Aiestaran prestatzaileak eta Esteban Gorostiaga medikuak lagundu naute. Bertalde, triatloian gehienbat iraupen eskia egiten duen jendea ateratzen da, edo udako triatloilariak, neguan entrenamendurako erabiltzen dutenak triatloi zuria. Eta berdin bertze kirolekin. Normalean parte hartzen duen jendea kirol batean izaten da trebeagoa, eta arrazoi ezberdinetatik ateratzen da, baina normalean entrenamenduen barruan izaten da.

## ■ Kirol hagitz ezaguna ez izan arren, nolako maila dago triatloian Euskal Herrian?

Betidanik ohitura handia izan da hemen. Gero eta jende gehiago aritzen da triatloian, jendea kanpora ateratzen hasi da... Nahiko mugimendu polita ikusten dut hemen.

«Txirrindularitza 18 urterekin hartu nuen serio, eta ordudanik nire helburua profesionaltara pasatzea izan da. Zail ikusten dut, ordea; hagitz zail. Nire esku dagoena egiten dut, baina azken erabakia ez dago nire esku»

## ■ Triatloiko Munduko Kopan eta Munduko Txapelketan aritzeko txartela eskuratu duzu. Horrek txirrindularitza denboraldian eraginik izanen al du?

Oraindik ez dakit joanen naizen. Argi dut prestatzaileei kasu egiten diedala. Lehendabiziko gauza dut txirrindularitza, eta kalte egiten badio ez naiz joanen. Nik uste dut txarra ez dela, baina agian ez da egokiena.

## ■ Txirrindularitzan ere amateur gisa sei urte daramazu. Egun Caja Rural taldean ari zara, eta profesionaltarako saltoa emateko irrikan. Nola ikusten duzu hastear dagoen denboraldia?

Txirrindularitza 18 urterekin hartu nuen serio, eta ordudanik nire helburua profesionaltara pasatzea izan da. Profesionaltara pasatzea zail ikusten dut, hagitz zail. Hala ere, nire lana entrenatzea eta ahalik eta emaitzarik onenak lortzea da. Nire esku dagoena egiten dut. Gogor entrenatu eta gauzak ahalik eta ongien egiten saiatuko naiz. Hala ere, azken erabakia ez dago nire esku.

## ■ Profesionaltako atea irekiko ez balitz, triatloia izan daiteke bertze bide bat?

Bai, izan daiteke, baina profesionaltara pasatzea lortzen ez badut badakit kirola egiten segituko dudala. Triatloia eta duatloia gustukoak ditut, baina ez agian ogibide bezala, denbora-pasa bezala baizik, bertze maila batean.

→ Jon Abril



## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Lascia ch'io pianga

**E**gunkarizale amorratuok badugu, noizean behin, zaletasunaz gozatzeko aukera. Horietako bat *El País*-ek eman zigun orain dela bi aste, Sanzi eginiko elkarrizketari esker. Corellarrari batzuek benetako estadista dela sinistarazi diotenez, solasaldi hura prestatzeko beharrik ez zuela erabaki omen zuen. Hizketan hasi, barrutik zetorkiona bota... eta Estatuko politiko nagusiekin hitz egin ohi duen kazetari madrildarra harriturik utzi zuen. Ez onerako, jakina. Kazetariaren iruzkinak, galderak eta idazkiaren tonu bera ziren horren froga nagusia. Gure diputazioburu txit argia, ordea, seguru ez dela horretaz ohartu. Harro dago.

San Fermin ikastolakoek badute, bai, harro egoteko arrazoirik, Iruñean aurten izanen dugun kultur ekitaldi garrantzitsuena an

tolatzeko gai izan direlako. Sanz oso Bayozalea izanagatik, ez zen kontzertura joan antolatzailerik ikastola bat zelako, bere maila berriro agerian utziz. Beste batzuek, Iruñeko alkatearen eta kontseilarien presentzia isiltzeaz gain, ikastolak argitaraturiko egitarauko italiarazko testuan zegoen akatsean oinarritu zuten ustezko kritika musikala. Zorionak San Ferminekoei, ergelen harrokeriak eta oroahaldunen haserre disimulaezinak bide onetik doazela erakusten dutelako.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Iruñea:** Numidia talde multietnikoak kontzertua emango du gaur Erraldoien Txokoan, 20:00etan.
- **Miarritze:** Zaldibobo taldeak Koliseoan joko du bihar, 21:00etan.
- **Bera:** Musika Berritzaileen Jaialdia bihar, kultur etxean, 22:00etatik aurrera, RAEO (Bartzelona-New York) eta El Corsal Desastre (Malaga-Azkoitia) taldeekin.
- **Etxalar:** Ibon Salaberriak Herriko ostatuan kantatuko du bihar, 22:00etan.
- **Lizarrar:** Ekon eta Txainas taldeak Gaztetxean izanen dira bihar, 22:30etatik aurrera.

### HITZALDIAK

- **Iruñea:** Gaur, 19:30etatik aurrera, Nabarrería Kultur Zentroan, *La Riojilla, una parte de la Navarra irredenta* izenburuko hitzaldia emanen du Rufino Gomezek, Belorado dantza taldeko kideak.
- **Iruñea:** Bihar, Arrotxapeako Ipargorri tabernan, kafe-solasaldia egingen dute. Iñigo Muguruza eta beste batzuk euskal musikaren bilakaeraren gainean ariko dira, 17:00etatik aurrera.
- **Iruñea:** Asteartean Joseba Tapia musikariak *Trikitixa versus Jaungoikoa* hitzaldia emanen du Zaldiko Maldiko elkartearen, 20:00etan.
- **Iruñea:** Asteazkenean Kirikupetan taldeak Euskal Herriko musika tresnen inguruko hitzaldi-erakustaldia eskainiko du 20:00etan, Iruñezar eskualtean.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Gaur, Golem zinetokietan, 20:00etan, Alfonso Arandaren *Anonimoa* filma, Iñaki Elizalderen *Gernika* film laburra-ekin batera.

### ANTZERKIA

- **Iruñea:** Bihar Sambhu Teatrok *Puffen mundua* haurrentzako lana eskainiko du Gaiarre antzokian, 12:00etan.
- **Iruñea:** Ostegunean Itu-

rrama Institutuko antzerki taldeak *Beste mundukoak eta zoro bat* lana taularatu du Erraldoien Txokoan, 20:00etan.

### ERAKUSKETAK

- **Barañain:** XI. Argazki Lehiaketako zuri-beltzeko lanak kultur etxean ikusgai lanegunetan, 18:30etatik 20:30etara.
- **Iruñea:** Maria Jesus Bakedanoren erakusketa Txantreako Auzotegin, hilaren 25 arte, astelehene-

tik ostiralera, 18:00etatik 21:30etara.

- **Iruñea:** Gabriel Arestiren heriotzaren 25. urteurrenari buruzko erakusketa Gotorlekuko Armen aretoan, hilaren 27 arte. 18:00etatik 20:30etara. Jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.
- **Iruñea:** Lacava galerian Rocio Martinezen lanak, hilaren 27 arte.
- **Tafalla:** Ana Carmen Claveriaren margolanak Garces de los Fayos aretoan, martxoan arte.

JOXE LACALLE •



### «Zoazte...!»

«Pertsona bat modu bitxi honetan zuzendu zitzairen EHren manifestazioan zeuden guziei». Horrelaxe deskribatu zuen Uharteko egunkari batek euren argazkilariak eta gureak hartu zuten irudia. Zerbait bitxia bada, eginiko deskribapena da. EHren manifestazioan zeudenek, eta batez ere ordena publikoa zaintzen ari zirenek, hagitz ongi dakite nori zuzendu zien Valentziako matrikula zuen autoko gidariak bere agurra, baita haren ahotik atera ziren hitz ederrak ere. Irudi batek mila hitz baino gehiago balio duela badakigu dagoeneko. Izan ere, argazkiak espazio denborako tarte tiki bat hartzen du. Auskalo zer gertatu zen lehenago edo geroago. «Zoazte!» erran zuen valentziarrak ala «Zatozte Valentziara»? Behintzat esertzeko lekuan ile kizkurrik ez duela badakigu.